

“PERU ABARKA” AZTERKETA FONOLOJIKOA ETA KOMENTAKETA LABUR BAT

Josebe Azpillaga

I. Sarrera

I.1. Euskal nobelaren sorrera.

Euskal nobela XIX.Mendean

XIX garren mendeko nobelan errealismoa eta naturalismoa ziren nagusi, eta korronte hauek munduaren ikuspegi burgesaren literatur adierazpen ziren.

Literatura eta gizartearen arteko arremanak edozein literatur-motan baino nabariago agertzen dira nobelan. Beraz, nobela XIX garren mendean hasi zen gizarteko dokumentu izaten; bainan nekez esan genezake orduko euskal nobelak Euskalerrriaren egoera eta gertakizunak adierazten zituenik.

Mila bostehun eta berrogei eta bost eta milazortziehun eta hirurogei eta hamazazpigarren urteen artean, ehun eta bat euskal-liburu argitaratu ziren. Aldi luze honetan landutako euskarazko literatur motak olerkia, lirika, epika eta antzerkia izan ziren; behin ere ez nobela, **Peru Abarka** izan ezik. Horretaz gainera, testu hau, mila zortziehun eta bian idatzia izanik, ez zen mila zortziehun eta laurogei eta bat garren urterarte argitaratu.

XVIII garren eta XIX garren mendeetan **Peru Abarka** eta **Auñamendiko lorea** arte idatzitako euskal literatura testu erlijiosoz (sermoiez, katekismoz, e. a.) osatua zegoen; XIX garren mendearen bukaeran eta XX garren mendearen hasieran, beste mota berri bati irekitzen hasten zaio: *nobelari*.

XIX garren mendean, garaiko literatur joerak, Klasizismoa eta Rokokoa, ez zetorzkion ondo euskal literaturari, ez bait zuten herritar kutsurik. Bainan, Europarekin batera, Euskalerrria beste joera bat lantzen hasi zen: herritasuna eta naturaltasuna, lehenagoko eskolaren aurka joaz. Beraz, XIX garren mendeko literaturak bere iturria herrian bilatuko du. **Peru Abarka** da joera hau jarraitzen duen nobelarik aipagarriena. Prosari dagokionez, berriz, XVIII garren mendeari begirada bat emanaz, asko zabaltzen da erabiltako gai ei buruz: lehen ia inoiz hartzen ez ziren gaiak erabiltzen dira; halere oraino erlijio literatura ugariena izan arren ere.

JUAN ANTONIO MOGEL ETA URKIZA eta PERU ABARKA

1. Juan Antonio Mogel eta Urkiza

Juan Antonio Mogel Eibarren jaio zen, eta Markinan erretore izan zen hil arte.

Euskalki gehienak ba zekizkien. Mogel Bizkai aldeko literatur mugimen-
duaren aitzindaria izan zen batez ere. Beraren lehen liburua gipuzkeraz idatzi
zuen ordea, gipuzkera literatur mailara igoa bait zegoen. Bera izan zen, gero-
ra, Bizkaiera, maila literariora jaso zuena.

Mogel garaiko hizkuntzalariekin harremanetan zebilen. Euskarari bu-
ruz, erdaraz gramatika azterketa-lanak egin zituen.

2. Peru Abarka

2.1. Ezaugarriak eta helburua

Durangon, mila zortziehun eta laurogei eta bat garren urtean **Beti bat**
zeritzan Bilboko aldizkari karlistan, orduraino argitara gabeko **Peru Abarka**
zatika agertzen da.

Ezaugarriei buruz, elkarrizketa da egileak erabiltzen duen teknika; zera
da: baserritar baten (Peru) eta barbero baten (Maixu Juan) arteko elkarrizke-
ta. Biok halabeharrez ezagutzen dute elkar.

Liburu honen ezaugarriak aipagarrienak beraren ironia haundian, eus-
kal esaeretan eta modismoetan datzate.

Peru Abarkak histori eta etnografi aldetik ere garrantzi handia du,
XIX garren mendeko bigarren aldiko nekazarien ohiturak, lantegiak, bertako
teknikak, tresnak eta garai horretan leku guzti hauetan erabiltzen zen hiztegia
ezagutzeko benetazko dokumentua gertatzen bait da.

Helburuari dagokionez, obra honetan Mogelek zera adierazi nahi digu:
baserritarrak direla beste guztientzat euskara arloan maisu eta eredu; obran
ikusten denez, jakintsuek ere baserritik igaro behar dute, Peruren “unibertsi-
tatea” delakotik.

Mogelen iritziz, euskara jatorra baserrian aurkitzen da, eta horretarako
elkarrizketaz baliatzen da, hau da, euskara jatorra ezagutarazteko.

Peru Abarkaren izaera bi helburutan agertzen da:

Bata, *didaktikoa*: izaera hau bi elementu nagusiek antolatzen dute:
alegia, ohiturazko ikuskizunak —baserriko bizitza, burdina- olako lana-

ren deskribapena —eta burutapen didaktiko eta doktrinalak— baserriko eguneroko bizitzaren azaltzearen bidez.

Bestea, *ohiturazkoa*: erlijio ikasketak, moralak, e. a. agertzen dituen.

2.2. *Idazkera, estiloa*

Peru Abarka liburuan bi alderdi agertzen zaizkigu:

Bata, *elkarrizketarena*, ezaugarririk garrantzitsuen, eta bestea, *narratibarena*.

Elkarrizketaren alderdiari dagokionez, Mogelen iritziz hau izango litzateke biderik egokiena euskal jende xeheari euskara jatorra ezagutarazteko, beraren sinpletasunagatik eta herri xehearentzat hurbilagoa eta ulertzeko errazagoa izanagatik

Narratibako alderdia bigarren planoan jartzen du Mogelek, irakurleak el-karrizketara jo dezala nahi bait du; helburu hau jarraitu nahiz, autu bakoitzaren haserako narratibo erreferentziak erdaraz daude.

Narratibo alderditik aberatsa ez izanik ere, liburuak duen hizkera —bizitasun ikaragarriak oker hori gaintitzen du guztiz.

Literatur mota hauetaz gainera, beste batzuk ere, erabiltzen ditu: erlijio gaiak, ipuinak eta itzulpenak.

ERITZI KRITIKOA. PERU ABARKA, AITZINDARI

1. Eritzi batzu

Peru Abarkari buruz polemika haundia izan da. Obra hau, nobela kontsidera daiteke? bai ala ez?

Alde batetik, gaurko poetikaren ikuspegiaz begiratura, literatur —mota historiko eta deskriptibo den zerbait baizik ez da; bestalde, nobela da literatur motarik mugikorrena.

Zer esan da arazo honi buruz? Adibide bezala, Mitxelenak eta Azkuek zera diote:

Mitxelenak: “En cierto modo es, en forma dialogada, el primer conato de novela en Vasconce”.

Eta Azkuek honela dio **Euskaltzale** aldizkarian, mila zortziehun eta lau-rogei eta hemeretzigarren urteko nobelaren argitaraldian:

“Irakurgai izena, osoz oso ez arren, ondo etorkionik.

Peru Abarka izan ezik, ez egoan, oraintsuarte behintzat, beste liburu-
rurik”.

Mogelek berak, berriz, elkarrizketa bat bezala azaldu zuen liburua, “au-
tua” izena ezarriaz azpigitulu bezala; honela: “Euskaldun baserritar bakarti
baten eta Maisu Juan bizargin kaletar baten arteko autuak”.

2. Eritzi pertsonala

2.1. **Peru Abarkak** ba du lauki narratibo bat, txikia bada ere, eta lauki hone-
tan dago oinarriturik liburuaren izaera didaktikoa.

2.2. Narratibo obra batean agertzen diren elementuak ez dira funtsez-
koak (tokia eta denbora, ekintza eta pertsonaiak) **Peru Abarka**-n, liburuaren
helburuei D(didaktiko eta ohiturazkoak) menperaturik bait daude. Adibidez:
tokia, ohiturazko ikuskizun huts bat da.

Denboraren igarotzea, berriz, ekintzarik gabe gertatzen da batzutan.
(Adibidez, lehen autuan.)

2.3. Bestalde, pentsalariek zer egiten duten, narrazioen bidez dakigu
ekintzen bidez baino gehiago. Baina, nire ustez, baserri bizitzean
oinarrituriko nobela bat bezala har daiteke, idazlan linguistiko eta
erlijioso bat baino.

Bestalde, **Peru Abarka** nobela bat den ala ez aztertzeko, bi alderdi ikus-
ten ditut: alde batetik, ba dirudi ezetz, euskal narraketa bat osorik izateko
autu bakoitzaren haseran dauden narratibo erreferentziak euskaraz egon
behar bait lirake, eta, liburuan, erdaraz daude, berriz.

Baina, baste aldetik, **Peru Abarka** lehen aldiz argitaratua izan zenean,
euskal nobelari gizarte baldintza berriek bidea egiten zioten. (Euskal kul-
turaren berpiztea, kazetaritzaren garapena, publiko irakurle baten jaio-
tza, e. a.). Beraz, lehendabiziko euskal nobelatzat onar daiteke.

2.4. Beraz, niri liburua oso irakurgai alai eta interesgarria iruditzeaz
gainera, uste dut **Peru Abarkak** ezaugarri narratibozko arrakastarik ba duela
euskal nobelaren sorreran ezartzeko.

Alde batetik, alai, beraren hizkera bizkorragatik, eta naturaltasunaga-
tik iruditzen zait. Eta bestalde, interesgarria, nirekin helburu didaktiko hori
lortu duelako: esera zaharren erakusketak, baserriko bizi-tza, burdina-olako
lana, eta euskal baserritarraren notasuna, hitz batean.

PERU ABARKA. ANALISI FONOLOJIKOA

1. Fonetika maila

1.1. Bokaleak/eta bokale elkarketak

Hego euskalki guzietan, beraz, Marxinako bizkaierak baita ere, bost fonema dituzte, bokaleen multzoan: /a, e, i, o, u/.

Bokaleen saila aztertzerakoan, beste bi behesailetan zatituko dut berauen azterketa:

- a) Hiatoen azterketa, eta
- b) Diptongoen azterketa.

1.1.1. Hiatoak

Liburuan, hiato kasu hauek agertzen dira:

-o + a > -ua: hau da, orokorki bizkaieran -“oa” bokale elkarketa duten hitzetan, elkarketa hori -“ua” ahoskatzen dela. Hiatoa indartze-ko helburua jarraituaz, beraz, “o” erdi-bokalea itxi egiten da, honela, bokale bat itxia (“u”) eta bestea irekia (“a”) izanik, ezberdintasuna haundiagoa egiten bait da, ihatoa indartuaz, bi bokaleen artean.

Adibidez (testuan):

jaungoikoak	jaungoikuak	edertoago	edertuago
ardaoa	ardaua	gaisoari	gaisuari
nengoan	nenguan	daroazala	daruazala
mozolooa	mozolua	darooa	darua

-o + e > -ue: aldaketa honek aurrekoaren helburu ber-bera du.

Adibidez:

txarrekoentzat	txarrekuentzat
eroen	eruen

-e + a > -ia: Adibidez:

adiskidea	adiskidia
etxea	etxia
erreal	errial
bageaz	bagiaz
ezean	ezian

1.1.2. *Diptongoak*

– Bost diptongo beheranzkoak ditu, noski:

– ai, ei, oi, au, eu.

Adibidez:

ondatzalle; kasu honetan,

“ai” diptongoaren monoprolongazioa eman da,

“i” bustiaz, eta honela “i” galduaz.

– “ui” goranzkoa ere ba du.

– Alderantzizko bost bokale bikoteek, berriz, *hiato* ematen dute beti bizkaieraz; hau da, bizkaierako bokale elkarketetan “I” edo “u” hasieran azalzen direnean, diptongoak hiato egiten dira.

– ia, ie, io, ua, ue.

Adibideak:

Beheranzkoa: jaungoikoa...

Goranzkoak: bahituretan ematen dira bereziki testuan:

[je]	erremienta	[eRemjenta]
[wa]	kuartillu	[kwa ^R til'u]

1.1.3. *Hitz bukaerako bokaleak*

Hauekin gertatzen dena ere bahituretan ematen da bereziki, eta zera da: “o” azken-bokalea “u” egiten dela: -o -u

Adibidez: cuartillo > kartillu
 barbero > barberu
 médico > mediku

1.1.4. *Bokaleen erreduplikazioak*

Ezaugarri hau bizkaierako berezitasun bat da.

Adibideak: dakeezanian, jaatera, nabee, txarrak, dautsee.

Bokaleen erreduplikazioak balio adierazgarri bat izan dezake, baina hala ere ez dago esplikaziorik kasu honentzat.

1.1.5. *Bokale protetikoa*

Ezaugarri hau ere bahituretan ematen da; baina, “R”-z hasten diren bahituren kasuetan bereziki.

Adibidez:

real / errial
recelar / errezela

1.1.6. *Erdikontsonanteak*

Euskalki guztietan bi erdikontsonante agertzen zaizkigu: “Yod” eta “Wau”; “Yod” “j” erdikontsonantea izanik, eta “Wau”, “w” erdikontsonantea, baita ere.

– “Yod” erdikontsonantea:

bi egoratan aurki daiteke: hitz haseran ala hitz bukaeran. Hitz hasera-koari dagokionez, hauek dira testuko adibideak:

jakin [xakiⁿ]
jaatera [xaatera]
jat (=zait) [xat]
jako (=zaio) [xako]
jaungoikuak [xaungoikuak]

“j” fonema bi eratara ebakitzen da bizkaieraz: “jarri”ren kasuan, adibidez:

[xaRi],	Markina aldean	(espainolezko “j”)
[zafi],	Lekeitio aldean	(frantsesezko “j”)
[jaRi],	Arrati aldean	(espainolezko “y”)

– Hitz barruan, *Yod* erdikontsonantea bokale artean agertzen da, eta S fonemarekin ebakitzen da, aztertzen da, aztertzen ari garan bizkaieran. (Markina aldekoa, bereziki).

Adibideak:

daijozala [daišosala]
opizijo [opizišo]
guztija [gustiša]
begijak [begiša^k]

– *Wau* erdikontsonantea:

egoera batean bakarrik aurki daiteke: bokale artean.

Adibideak:

naute: nau+e > nawe > nabee
duen: dau+en > dawen > dabene
buruan > buruban
gerrestua > garrestuba
barruan > barruban

1.1.7. *Beste berezitasun batzuk: bokaleen ixtura eta irekidura*

Kasu hauek ematen dira:

a) Hitz hasieran: i- > u-

Alternantzia hau gipuzkeran, hitz hasieran “i” duten hitzetan agertzen da.

Adibidez:

- (c) irten / urten (B)
- (c) (h)iri / uri (B)
- (c) ile / ule (B)
- (c) ipuin / upuin (B)
- (c) irin / urun (B)

b) Hitz barruan: u > i

Adibidez:

- (c) gutxi / gitxi (B), e. a.

d) Beste alternantzia bat: eR > aR

Kasu honetan, “R”ren eraginez “e”, “a” ahoskatzen da.

Adibideak:

- (c) berriketa / barriketa (B)
- (c) zerri / txarri (B)
- (c) berri / barri (B), e. a.

Testuan salbuespen batzu azaltzen dira.

Adibidez:

- (c) gerrikoa / gerrestuba (B)

Hemen “e” bokalea ez da guztiz ireki.

1.2. *Kontsonanteak eta kontsonante elkarketak*

Peru Abarka testuan, bizkaieran “h”ren aztarna nola galdu den garbi ikusten da. Adibidez, “miña” hitzaren kasuan, zera gertatu da:

“miña”: mihi + a > miña; “h” horrek eman du bizkaieraz “ñ”.

Bahituretan berriz, baita ere, “h” agertzen denean, bizkaieraz ahoskatze-rakoan galdu egiten da.

Adibideak: baina, aurana, e. a.

1.2.1. *Igurzkarien nahasketa*

Bizkaierako ezaugarri hau liburuan agertzen da baita ere, hau da, “z” eta “s”ren arteko nahasketa.

Adibidez: baisen, baskaria, nas, nasan, inos, e. a.

1.2.2. *Bustidura*

Bustidura da bizkaieraren ezaugarri garrantzitsuenetako bat.

Testuan bustidura hauek aurkitu ditut, eta berauek dira garrantzitsuenak:

- il > ill;
adibidez: ibilli, ondartzalle.
- in > ñ;
adibidez: oñetan, baña, bañan, baño.
- in > iñ;
adibidez: premiña.
- in > iñ;
adibidez: oraiñago.
- itz > itx;
adibidez: gatz. (=gatz).

Shanditan, hau da, bi hitzen elkarketetan ere, bustidura ematen da.

Adibideak:

(B) -z + j- = -tx		
ez jakolako	(= ez zaiolako)	→ etxakolako
ez jat	(= ez zait)	→ etxat

1.2.3. *Beste zenbait berezitasun*

- Bahituretako hitz hasierako f- > p- egitea.

Adibidez:

fiel > piel
oficio > opizio
fama > pama

- Zenbait hitzetan inposiban dagoen “R” deuseztatzea; hala ere hau irregularki gertatzen da.

Adibidez:

zek (eta ez zerk)
 nok (eta ez nork)
 inok (eta ez inork)
 ezek (eta ez ezerk)

— Bahituretako $l > r$ egitea. Aldaketa hau askotan gertatzen da.

Adibidez:

gula > gura

1.2.4. *Kontsonanteen elkarketa batzuk*

Mota honetako elkarketak agertzen dira liburuan:

igurzkari + ezpainkari ahostuna = igurzkari + ezpainkari ahoskabea.

Adibidez:

ez + ba → ezpalitxakio

Eta honetaz gainera, beste hauek:

igurzkari + afrikari + igurzkari afrikari = albokari

Adibidez:

ez + z- → etziniak

igurzkari + horzkari ahostun = igurzkari + horzkari = ahoskabe

Adibidez:

ez + d- → eztabil

Baina ba dira kontutan hartu beharreko beste salbuespen batzu; igurzkariaren ondoren sudurkari bat agertzen denean,

Adibidez:

Ez nas, ez nau, ez nintzan, e. a.

2. Morfosintasi maila

2.1. *Deklinabidea*

Testuan, Markinako bizkaierak dituen ezaugarri hauek agertzen dira:

— Ergatibo plurala:

erabiltzen den morfema *ak* da.

Adibidez:

“guztiak asko gura dautsee”.

– Soziatiboa: singularra, *gaz* morfemarekin egiten dute.

Adibidez:

katubagaz.

Plurala, berriz, *kaz* morfemarekin.

Adibidez:

meiakaz.

– Datibo plurala, *ai* egiten dute.

Adibidez:

nekazaliai.

– Ablatibo singularra, berriz, *ti*.

Adibidez:

zateti, aldeti, buruti, e. a.

2.2. *Atzizkiak*

Atzizkien mailan, ba ditu bizkaierak zenbait berezitasun:

– Gipuzkerazko *ki* atzizkia, *to* egiten da.

Adibidez:

(c) ederki / (B) ederto.

– Gipuzkerazko *txo* atzizkia, *txu*, berriz.

Adibidez:

(c) zaletxoba / zaletxuba (B).

2.3. *Aditza*

2.3.1. *Nor mota*

Bizkaierazko aditzaren ezaugarri bat monotongazioa da.

Hona hemen adibide bat:

– (c) naiz / nas, [nas], (B).

Kasu honetan, ahozkatzerakoan, *i* bokaleak *z* fonema busti du, eta asimilatua gelditu da.

Beste aditz adibide batzu:

nintzala
zinan [sinan] (= ziren)
etziniala [eciniala] (= ez ziñan ala).

Kasu honetan, bi aldaketa gertatu dira:

a) Kontsonante elkarketa bat, ez ziñan;

b) Disimilazio bat: -“ziñan” -“tzini” *a* bokalea, galdu egin da disimilazioz, *i* emanaz; eta, bestalde, azkeneko *n* sudurkaria ere galtzen da, edo erortzen da, ia euskalki guztietan gertatzen den erregela bat denez.

2.3.2. **Nor-nori mota**

Hona hemen testuan agertzen diren adibide batzu:

(c) zait / jat [xat] (Markinako B.)
(c) zaiolako / jakolako [xakolako] (B)

Bi aditzotan aldaketa ber-bera agertzen da: batean, *i* bokalearen asimilazio garbia; eta bestean, asimilazio bera baita ere, bainan beste aldaketa bati loturik doalarik: *ai* diptongoaren puskaketa, *k* erdikontsonantearen bidez. Eta, azkenik, biok, gipuzkerazko eta batuazko hasierako “z”, “j” [x] fonemaz egiten dute.

2.3.3. **Nor-nork mota**

Adibideak:

nau
dabe (dau > dau + e = dawee > dabe) (=dute)
dot (=dut)
dozu (=duzu)
nabee (= naute) (nau + e = nawee > nabee)
neban (=nuen)
dau (=du)
ditubana (=dituena), (=dituana)

2.3.4. **Nor-nori-nork mota**

Adibideak:

deust (=dit); deutsa (=dio); deutsoe (=diote);
deutsut (=dizut); deuste (=didate), e. a.

2.3.5. *Aditz sintetiko harrigarri batzuren aztarnak ere azaltzen dira tes-tuan:*

Dakusanak (ikusi); dirautsut (irantsi) (aditz hau, norbaiti hitzegiten ari zaionean erabiltzen da, hau da, “esan” aditzaren forma sintetikoa da); diarduzu (=ari zara), e. a.

2.3.6. Subjuntiboko aditz iragankorraren laguntzailearen erroa, bezala, *egin* erabiltzen dute bizkaieraz, eta “egin” laguntzaile honen esanahia, *ezan* da batuaz.

Adibidez:

- (c) diezazkiola [diesaskiola] / daijozala [daisosala] (B)
- (c) ezazu [esasu] / egizu [egisu] (B)
- (c) nezake [nesake] / nei [nei] (B)
- (c) “biaje on dezala” / “biajon dagijala” (B)
- “bidai on dezala” [biason dagisala]

2.3.7. *Aditz-izena*

Batuaz eta gipuzkeraz “-tzen” erabiltzearen alderantziz, bizkaieraz ez zaio aditzari “ten” atzizkia zuzenean eransten, partizipio morfemaren ondoren baizik:

- biur + *tu* (partizipio morfema) + te + n → biurtuten
- sal + *tu* (partizipio morfema) + te + n → salduten
- (*t* fonema *d* egiten da, *l* ondoren doalako)
- bat + *tu* (partizipio morfema) + te + n → batuten

2.3.8. **Eroan** *aditz erdilaguntzailea*

Testuan, ezaugarri honen adibide batzu azaltzen dira. erabili *daruadaz*; berotu *daruazak*; euki *eruen*; ikasi *darua*; e. a.

2.4. *Sintasis mailan beste berezitasun batzu*

— “Bi” zenbakaria izenaren ondoan jartzen da bizkaieraz: etxe bi, mutil bi, urte bijan...

— Aditzak eta erakuslea ere, aldiz, izenaren kasu berean, *aurrean* jar daitezke.

Adibidez:

“Nas bada oraiñago...”
an etxean
ortik etxetik, e. a.

— Edozein konjuzioren kasutan, sarritan, gazteleraren parekoak dira, honen esanahiari hurbiltzeari dagokionez.

Adibidez:

“ain dollorrak izan dira, *zein da*” (konsekutiboa)

“...ezin besteaz *baño*...” (=baizik; beraz, koordinatu adbersatiboa).

2.5. *Hiztegia*

— *Zenbait esannahi:*

zantar = zatar, aldrebas, zikin...
baldres = baldar
baldar
legez = bezala
lokatu(rik) = balantzaturik
belutu = berandutu
nekezale = langile
gatz = gula = gura = nahi
berba = hitz (hitz oso zakarra eta oso erabilia)
beste = (h)ainbeste = adina, aina.
lantasuna apaltasuna
larregi = gehiegi
ospetsu = alaia, juergalaria
ostera = berriz
eskerga = handia
biajon = biaja on (=bidaia on)
eria = okasioa

— *Zenbait espresio berezi:*

“Buruba bat egiten” = lagun artean, bata bestea bezala hartzea, berdintzea.

“Ardauak igarota” = mozkortuta.

“Astegun buru zurijan” = astelehen zurian, elurra egin zuen astelehenan.

“Katubagaz zutinik” = katuarekin zutik.